



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko abenduaren 15a

108. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean alde zuzeneko erretiroa eskatzen duten unibertsitateetako kanpoko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri eta borondatezko erretiroaren sari osagarri horren zenbatekoa finkatzen dituen [\(3. or.\)](#).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Gizarte ereduari buruzko gutun baterako. Proposizioaren testua [\(7. or.\)](#).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakiteko ea egoki jotzen den “Nafarroa: guztion artean etorkizuna eraikiz” izeneko erakusketak 3 milioi eurotik gorako kostua eduki izana foru erkidegoko diru publikoarentzat, kontuan izanik Kultura Departamentuaren “Udaletako kultur ekintzetarako laguntzak” izeneko kontusailak 540.000 euro soilik dituela guztira 2007ko aurrekontuan, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina [\(15. or.\)](#).

—Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak lehendakariak ere beharrezkoa ikusten duen euskara eta indarkeria maltzurki ez lotzea, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina [\(15. or.\)](#).

—Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ahalmenik ote duen bere gain hartzeko bide seinale guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egon daitezkeen aldatzeak duen kostua, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina [\(16. or.\)](#).

—Galdera, jakiteko noiz eta nola beteko duen Nafarroako Gobernuak Berriozarko Udalarekin hitzarmena sinatzeko konpromisoa, Laira zentroa finantzatzeko aldera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina [\(17. or.\)](#).

—Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Murugarrengo Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina [\(17. or.\)](#).

- Galdera, Toki Administrazioiko Departamentuak Murugarrengo Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egin (18. or.).
- Galdera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Murugarrengo Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egin (19. or.).
- Galdera, jakiteko ea zer egin duen Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Batzordearen 2000ko azaroaren 21eko erabakia betetze aldera, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (19. or.).
- Galdera, “Iruñerriari buruzko 2006ko azterlan soziolinguistikoa” kontratatzearen kostuari eta horretarako prozedurari buruzkoa, foru parlamentari Juan Miguel José Izu Belloso jaunak egin (20. or.).
- Galdera, Iruñerriaren hizkuntza-mugak aldatze aldera egiten ari diren azterlanei eta txostenei buruzkoa, foru parlamentari Juan Miguel José Izu Belloso jaunak egin (21. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, gelazain nagusi lanpostua merezimenduen lehiaketa bidez betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Gelazainen Kidegoko funtzionarioen artean. Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean alde zuzeneko erretiroa eskatzen duten unibertsitate-kanpoko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri eta borondatezko erretiroaren sari osagarri horren zenbatekoa finkatzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2006ko azaroaren 20an hartutako erabakiaren bidez, ondoko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura: Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean alde zuzeneko erretiroa eskatzen duten unibertsitate-kanpoko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri eta borondatezko erretiroaren sari osagarri horren zenbatekoa finkatzen dituen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean alde zuzeneko erretiroa eskatzen duten unibertsitate-kanpoko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri eta borondatezko erretiroaren sari osagarri horren zenbatekoa finkatzen dituen Foru Lege proiektua.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun baliouduneko epea hasiko da eta 2007ko otsailaren 5eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. arti-

kuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte proiektuari.

Iruñean, 2006ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proiektua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean alde zuzeneko erretiroa eskatzen duten unibertsitate-kanpoko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri eta borondatezko erretiroaren sari osagarri horren zenbatekoa finkatzen dituen

ZIOEN AZALPENEA

Hezkuntza Sistemaren Antolamenduari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen iragankorrek alde zuzeneko erretiroa hartzeko araubide bat ezarri zuen Estatuko Klase Pasiboen Araubidearen eraginpean dauden unibertsitate-kanpoko langile irakasleentzat, betiere adinari eta lan urteei buruzko baldintza batzuk betez gero.

Arau horretan, gainera, alde zuzeneko erretiroa hartzean hogeita zortzi urteko zerbitzualdia frogaturik duten funtzionario irakasleei ohiz kanpoko eskersari bat ematea aurreikusitako zen.

Garai bateko Hezkuntza eta Kultura Departamentuko eta sindikatu-erakundearen ordezkariek Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko 2001eko maiatzaren 31n sinatutako Ituna betearazteko neurrien artean, unibertsitateko ikasketak hobetzeko neurriak ezarri

zituen uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea dago. Foru lege horren 2. artikuluan, aldez aurreko borondatezko erretiroaren ohiz kanpoko eskersari osagarri bat jasotzeko eskubidea onartzen zaie lanpostua uzten duten Nafarroako Foru Komunitateko funtzionario irakasleei, administrazio horren aurrekontuen kargura, izan ere, halaxe ezarrita zegoen Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen iragankorrean.

Borondatezko erretiroaren saria aldez aurretik jaso ahal izateko, Nafarroako Foru Komunitateko funtzionario irakasleek, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren bederetzigarren xedapen iragankorrean ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzeaz gainera, honako hau bete behar zuten: 1996ko irailaren 1ean jardunean egotea eta, geroztik, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe-etako plantilletako irakasle lanpostuetan edo Nafarroako Gobernuak 2006ko ekainaren 5eko Erabakiaren bidez, 2000ko irailaren 1era eraman da.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak erretiroa aldez aurretik hartzeko araubide berria ezarri zuen Estatuko Klase Pasiboen Araubidearen eraginpean zeuden unibertsitatez kanpoko irakasleentzat. Araubide berria Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen iragankorraren bidez ezarritakoa bezalatsukoa bada ere, berrikuntza nabarmenak dakartza, eskatzen diren betebeharrak orokorrak aldatu baitira eta erretiroa hartzeko bide hau beste araubide batean sarturik dauden funtzionario irakasleek ere hartzeko aukera ematen baitu.

Gauzak horrela, erretiroa hartzeko bide hau aukeratu nahi dutenek, eskaera egiten duten egunean, hamabost urteko zerbitzualdi jarraitua frogatu beharko dute irakasle gisa. Hortaz, ez zaie eskatuko 1990eko urtarrilaren 1etik jardunean egotea, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen iragankorrean ezartzen zen bezala.

Gainera, irakasle lanetan hamabost urteko zerbitzualdi jarraitua frogatzeari begira, zerbitzu berezietan emandako denbora ere kontatuko da, orga-

nikoki edo eginkizunei dagokienez hezkuntza administrazio baten menpe dagoen lanpostu batean aritzeko izan bada, eta baita seme-alabaren bat edo beste ahaideren bat zaintzeko eszedentzia berezian emandako denbora ere.

Azkenik, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak bide ematen die Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean edo aurreikuspen sozialeko beste araubide batzuetan sartuta dauden langile irakasleei Estatuko Klase Pasiboen Araubidean jasota dagoen aldez aurreko borondatezko erretiroa hartzeko, arau horretan adinari eta zerbitzualdiari dagokienez ezarritako baldintzak betez gero eta erretiroa hartzeko eskaera egiten dutenean araubide horretan sartzea aukeratuz gero.

Horiek horrela, aldez aurreko erretiroa hartu nahi duten irakasleek ohiz kanpoko ordainsaria jasotzeko lehen aipaturako Lege Organikoak ezarritako baldintzak Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Administrazioaren zerbitzuko irakasleei erretiro-sari osagarria jasotzeko eskatzen zaizkienekin harmonizatu nahian, beharrezkoa da foru lege hau onestea.

Aurreko guztia kontuan harturik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 b) artikuluan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko funtzionarioen estatutu-araubidearen arloan Nafarroako Foru Komunitateak dituen eskumenak erabiliz, Nafarroako Parlamentuak foru lege hau onetsi du.

Artikulu bakarra. Borondatezko erretiro-saria, Hezkuntzari buruzko abenduaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bigarren xedapen iragankorrean ezarritako ohiz kanpoko eskersariaren osagarria dena.

Funtzionarioek beren funtzionario izaerari uko egiten badiote edo erretiroa borondatez hartzen badute 60 urtetik gora dutela eta zerbitzuan 28 urte eginda, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko Lege Organikoaren (LOGSE) bederatzigarren xedapen iragankorraren babesean eta bertan adierazten diren baldintzak betez, Foru Komunitateko Administrazioak borondatezko erretiro-sari bat emanen die; sari hori xedapen iragankor hartan ezarritako ohiz kanpoko eskersariaren osagarri izanen da.

2. Erretiro-saria hartu ahal izateko, funtzionarioak erretiroa eskatzen duen urteko abuztuaren 31tik atzera Nafarroako Foru Komunitatean kokaturiko ikastetxe-etako plantilletako lanpostuetan sei urtez jarraian jardunean egon izana eskatuko zaio. Eskatutako zerbitzualdi horren barrenean zerbitzu

berezietan egon bada edo, organikoki edo eginkizunei dagokienez, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza administrazioaren menpe dagoen lanpostu batean, are eszedentzia berezian ere, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 27. artikuluko 1. idatz-zatian adierazitako egoeraren bat dela kausa, berdin balioko du.

3. Aurreko idatz-zatietan ohiz kanpoko eskersariari buruz eta erretiro-sariari buruz xedatutakoa aplikatuko zaie funtzionario izaera ekainaren 27ko 5/1990 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren babesean edo geroagoko arau baten babesean eskuratu zuten langileei, baita lan itunpeko irakasle finkoei ere.

4. Borondatezko erretiroaren saria zenbatekoa izanen den, foru lege honetako I. eranskinak agintzen du, funtzionarioaren adina, zerbitzu urteak eta kidegoa kontuan harturik.

5. Nafarroako Gobernuak borondatezko erretiro-sariaren zenbatekoa urtero igoko du Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko funtzionarioen eta estatutupeko langileen lansariak igotzen diren neurri berean.

Xedapen iragankorra

Bakarra. Nola aplikatu foru lege hau 2006. urtean alde aurreko borondatezko erretiroa Hez-

kuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aplikatuz hartu zuten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langile irakasleei.

Aldez aurreko borondatezko erretiroa 2006ko ekainaren 30a baino lehen, hots, ezarri zen ohiz kanpoko epearen barrenean, eskatu zuten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari berezia jasotzeko eskubidea izanen dute, foru lege honetan ezarri diren baldintzak betetzen badiuzte.

Xedapen indargabetzailea

Bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe utzi dira unibertsitateko ikasketak hobetzeko neurriak onetsi zituen uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen 2. artikulua eta foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena

Bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

FORU LEGE PROIEKTUAREN I. ERANSKINA

2006.- Ondoko kidegoetako funtzionarioak: Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegokoak, Bigarren Hezkuntzako katedradun direnak; Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunen kidegokoak; Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen kidegokoak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko katedradun direnak; Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegokoak, Hizkuntza Eskola Ofizialetako katedradun direnak; eta Hezkuntza ikuskatzaileen kidegokoak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	8.696,38	8.792,47	8.792,47	8.792,47	8.864,55	8.864,55	8.864,55	8.948,62
Adina. 63 urte	8.960,64	8.960,64	8.960,64	9.044,70	9.044,70	9.044,70	9.128,78	9.440,54
Adina. 62 urte	9.128,78	9.128,78	9.224,89	9.224,89	9.561,21	10.197,83	10.954,55	11.843,40
Adina. 61 urte	9.308,97	9.381,04	9.801,43	10.486,09	11.290,87	12.239,80	13.332,83	14.533,99
Adina. 60 urte	9.765,41	10.450,06	11.242,83	12.179,72	13.272,79	14.558,02	15.987,39	15.987,39

2006.- Ondoko kidegoetako funtzionarioak: Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegokoak, Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegokoak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen kidegokoak eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegokoak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	8.767,07	8.863,95	8.863,95	8.863,95	8.936,61	8.936,61	8.936,61	9.021,38
Adina. 63 urte	9.033,49	9.033,49	9.033,49	9.118,25	9.118,25	9.118,25	9.203,02	9.203,02
Adina. 62 urte	9.203,02	9.203,02	9.299,89	9.299,89	9.299,89	9.396,75	9.747,92	10.426,05
Adina. 61 urte	9.384,65	9.481,52	9.481,52	9.481,52	10.014,32	10.728,77	11.564,31	12.545,16
Adina. 60 urte	9.481,52	9.481,52	9.978,01	10.680,34	11.515,87	12.484,61	13.622,88	14.967,01

2006.- Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko edo Arte plastikoetako eta Diseinuko Tailerreko maisu-maistren kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	7.291,41	7.355,26	7.355,26	7.355,26	7.408,49	7.408,49	7.408,49	7.472,35
Adina. 63 urte	7.483,02	7.483,02	7.483,02	7.536,24	7.536,24	7.536,24	7.610,74	7.610,74
Adina. 62 urte	7.610,74	7.610,74	7.674,61	7.674,61	7.674,61	8.079,10	8.568,74	9.164,81
Adina. 61 urte	7.738,48	7.802,34	7.802,34	8.260,04	8.802,92	9.430,94	10.165,40	11.027,60
Adina. 60 urte	7.802,34	8.238,76	8.770,99	9.388,36	10.122,81	10.974,36	11.974,96	13.156,47

2006.- Maisu-Maistren kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	7.266,02	7.322,16	7.322,16	7.322,16	7.389,56	7.389,56	7.389,56	7.456,93
Adina. 63 urte	7.894,92	7.894,92	7.894,92	7.951,06	7.951,06	7.951,06	8.029,67	8.029,67
Adina. 62 urte	8.029,67	8.029,67	8.097,07	8.097,07	8.097,07	8.175,68	8.478,89	8.995,49
Adina. 61 urte	8.164,44	8.231,82	8.231,82	8.231,82	8.669,81	9.231,33	9.882,68	10.657,57
Adina. 60 urte	8.231,82	8.231,82	8.647,35	9.208,86	9.848,99	10.612,66	11.499,85	12.544,28

Foru lege honetako 3. puntuan xedatutakoaren arabera, ohiz kanpoko ordainsaria eta erretiro saria emanen zaie bai funtzionario izaera ekainaren 27ko 5/1990 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren babesean edo geroagoko arau baten babesean eskuratu zuten langileei, baita lan-kontratuko irakasle finkoei ere.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Gizarte ereduari buruzko gutun baterako.

PROPOSIZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikuluan aitortzen duen herriaren legegintza-ekimenaz baliatuz eta martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen babesean, Mitxel Lacunza Vicario jauna buru duen batzorde sustatzaile batek Gizarte ereduari buruzko gutun baterako Foru Lege proposamena aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuan, eta Mahaiak tramitera onartu zuen 2006ko maiatzaren 8an harturiko Erabakiaren bidez.

Nafarroako Hauteskunde Batzar Probintzialeko idazkariak, herriaren legegintza-ekimena arautzen duen 3/1985 Foru Legearen 12.2 artikuluan xedatutakoa betez, ziurtagiri bat luzatu du, egiaztatzeko ezen "Gizarte ereduari buruzko gutun baterako herriaren legegintza-ekimena sustatu duen batzordearen presidentek Nafarroako Hauteskunde Batzar Probintzial honetan aurkeztu duen dokumentazioa ikusirik, proposamena izenpetu dutenen sinadura baliozkoen kopurua zortzi mila bostehun eta berrogeita hiru dela (8.543)".

Hori horrela, 3/1985 Foru Legearen 13. artikuluan eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan xedatutakoarekin bat, Eledunen Batzarri entzun ondoren, ERABAKI DA:

1. Gizarte ereduari buruzko gutun baterako Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

2. Erabaki hau Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuburuari igortzea.

Iruñean, 2006ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Gizarte ereduari buruzko agirirako legegintzako herri ekimenaren justifikazioko memoria

SARRERA

Legegintzako herri ekimen honen xede nagusia gizarte ereduari buruzko agiri bat onartzea da, hau da, Nafarroako Foru Erkidegoan behar bezala betetzen ez diren eskubide sozial batzuk edukiz betetzea, alegia, benetan bermatuak izateko neurriak jasoko dituen agiria onartzea. Hauxe gertatzen da hain zuzen ondoko eskubideekin: mende-kotasun egoeran zaindua izateko eskubidea, hezkuntzarako eskubide unibertsala eta bereziki O eta 3 urte bitarteko haurren, gaur egun osasun zerbitzu publikoek onartzen ez dituzten prestazio batzuk jasotzeko eskubidea eta etxebizitza bat izateko eskubidea.

Proposatzen dugun gizarte ereduari buruzko agiria mugatua da, jakina. Aski da 3. artikuluan aitortutako eskubide sozialak eta III. tituluan jasotako jarduketa zehatzak konparatzea. Berariaz aukeratu ditugu estaldurarik eskasena duten eskubideak eta herritarren sektore handietan ezinegonik larriena zabaltzen ari direnak. Beste alde batek, izaera sozialeko eskubideak dira, argi eta garbi, eta haien gaineko jarduketa publikoak agiriaren proposatzen dugun moduan burutuz gero, gauzatu ahal izango lirateke eta emaitza positiboak ekarriko lituzkete gizarte ongizateari dagokionean, eta ageri-agerikoak izango lirateke emaitzok epe motzean.

Proposatzen dugun agiriaren mugek zerikusi handia dute Legegintzako Herri Ekimenak arautzen dituen markoarekin berarekin. Ekimen horien bidez ez zaio gizarteari ahalbideratzen proposamenak egiten fiskalitate edo aurrekontuak bezalako gaien inguruan, ezta Legebiltzarrean jorraturiko gaien buruz ere.

Jarraian, gure iritzian justifikatu beharrekoak diren agiriko artikuluen justifikazioa azalduko dugu.

OINARRIZKO GIZARTE-ESKUBIDEAK

Nafarroako herritarrok ukitzen gaituzten lege askotan jasotzen dira agiri honetan zehazten diren eskubideak. Agiri honetan hauek sartzeko arrazoa, gizarte ereduaz ari garenez, gizarteari zentzua ematen dioten gizarte-eskubide guztiak biltzea baino ez da, izan ere, eskubideok aitortu eta benetan bermatuta daudelako izango litzateke gizarte on bat, hain zuzen ere.

MENDEKOTASUNA

Lehenik eta behin, aitortu behar dugu "mendekotasun" hitzak egokitasun arazoak dituela eta nahasgarria suerta daitekeela. Mendeko pertsonen arituz gero herritarrak mendekoen eta autonomoen artean banatzen ditugulako, eta honek ez du behar bezala islatzen gu guztiok neurri handiagoan edo txikiagoan mendekotasun egoerak pairatzen ditugula geure bizitzako aldi batzuetan, alegia zenbait egoeratan ez gara gai nor geure kabuz moldatzeko eta beraz hirugarren batzuen zainketak behar izaten ditugula.

Agirian mendekotasuna aipatu eta jarduketak batzuk proposatzen ditugunean, mendekotasun mota bat baino ez dugu adierazi nahi, hau da, eguneroko oinarrizko zereginak burutzeko gaitasuna edo ahalmenari dagokiona: janzteia, jatea, mugitzea eta abar.

Mendekotasuna horrela ulertuta, aurreko paragrafoan azaldu dugun moduan alegia, gorantz aritzen den fenomeno dugu, bizitza luzatzearekin batera.

Gizarte eta osasun zerbitzuetatik kanpoko zainketen kopuruaren garrantzia itzela da. Maria Angeles Durán-en "Los costes invisibles de la enfermedad" (1999) liburuak dioenez, espainiar estatuan kalkuluen arabera gaixoak zaintzen guztira 5.000 milioi ordu ematen dira, bada, hauetatik %12 baino ez dute betetzen osasun langile profesionalak, eta gainerakoa familiek eta lagunek betetzen dute. Zainketa hauek 8 orduko 276 lan egun lirateke (34.531 milioi euro urtean, lanbide arteko gutxieneko soldataren arabera ordainduta). Gizonek (192 ordu) baino emakumeek askoz ere ordu gehiago ematen dituzte urtean (307 ordu) ordaindu gabeko osasun arreta hauetarako.

Espainiako Geriatria eta Gerontologiako Elkartearen arabera (webeko datuak 05/irail/19): senitarteko adindun bat zaintzen duten 10 pertsonetatik 8 emakumeak dira, 45 eta 65 urte bitartekoak;

emakume zainzaile hauen artean %43 alabak dira, %22 emazteak eta %7,5 errainak; batez beste 52 urte dute; % 77 ezkontuta daude; zainzaileen %80k ez dute lan ordaindurik; %85ek egunero laguntzen diote senitarteko adindun bati; eta abar.

Bistan da zainketa hauek gizarte-erantzukizun generizatua eta naturalizatua islatzen dutela eta emakume helduak ukitzen dituela gehienbat, oinarritzat gizon-emakumeek egindako lanaz bestelako ikuskera bat duela, baita kultur bereizketa bat ere, alegia arrazoizko arloa gizonei eta gauza publikoei dagokiela eta emoziozko arloa berriz emakumei eta gauza pribatuei. Izatez, eskuarki, zaintzea ez da lantzat hartzen, sentimenduei eta afektuei loturik emakumeek egiten duten gauzatzat baizik.

Hainbeste badira ere, gizarte eta osasun zerbitzuetatik kanpoko zainketen arazoa da erantzukizun hau ez del a guztiz agerikoa eta gizarteak ez duela aintzat hartzen.

Egoera demografiko eta sozialen aldaketak direla eta, mendekoentzako arreta gizartearazo garrantzitsu bihurtu da erakundeentzat eta, hartara, erakundeek politika publikoak zehaztu dituzte.

Arautze politiko hau "familiako eta laneko bizitza bateragarri egite" delakoaren esparruan ere kokatzen da, izan ere, neurri hauek lan merkatuan parte hartzea eta mendeko pertsonak (adingabeak, adinekoak, gaixoak eta gutxituak) zaintzea uztartu ahal izatea bilatzen dute.

Familiako eta laneko bizitza bateratzeari buruzko politika publikoak hiru motatakoak dira:

(1).- Dirua eskaintzen dutenak, subentzio eta neurri fiskalen bitartez zainketak zuzenean egiteko edo zerbitzuak kontratatzeke.

(2).- Denbora eskaintzen dutenak, lan ordutegia murriztu edo berrantolatzearen bitartez.

(3).- Familiaz kanpoko zerbitzuetan oinarritzen direnak, halako moldez non zeregin hauek beste batzuek egiten baitituzte.

Hirugarren aukera hau litzateke berdintasun handienekoa, bai zerbitzu hauek ematen dituzten pertsonen dagokienez, bai emakumeen zaintza-denbora gutxitzen delako. Hala ere, hau ez da oraindik aukera erreala, beraz, hau esanda honakoak zehaztu behar ditugu: zerbitzuen tradizioa urria da prestazio ekonomikoen aldean, tokiko gizarte-zerbitzuen sarea ez da behar adina garatu prestazio ekonomikoak hobesteko kultura aldatuz joan dadin, gizartean ez dago eztabaida zabal bat gizarte-zerbitzuen planei buruz, eta abar.

Ondorio orokor gisa, esan dezakegu hartutako neurriek ez dutela ekarri egoeraren aldaketa, izan ere, herritarren erantzukizuna emakumeei dagokie betiere eta ez da eztabaidatzen "zaintzaile" bete-behar hori, alta, hau ezinbesteko baldintza da aldaketa eragiteko.

Agirian defendatzen dugu mendekotasun egoeran dagoen jendeak zaindua izateko eskubidea duela: bere ohiko bizilekuan, zerbitzu publiko baten bidez eta zerbitzu honek araubide juridiko publikoaren pekoa, doakoa eta orokortua izan behar duela. Halaber premiazko eskea egiten diogu Nafarroako Gobernuari 6 hilabeteko epean mendekotasun egoeren arreta premien mapa bat egin dezan, eta bitartean etxeko laguntza egokia edo plaza bat egoitza batean berma diezaien mendekotzat jotzen diren pertsonen.

OSASUNA

Osasuna da ongizatearen estatuaren garapena islatzen duen ezaugarrietako bat. Osasunak esku-bide unibertsala izan behar du, eta erakunde publikoek bermatu behar dute hala dela. Baina Nafarroako Foru Erkidegoko osasun sistemaren egoera ez da litekeen onena. Are gehiago, gauzatu diren aurrekontu eta kudeaketa arloko politiken ondorioz bilakaera negatiboa izan dela esan dezakegu.

Osasunerako erabilitako gastu publikoa Europako Batasuneko batezbestekotik urruti dago. Nafarroan BPGaren %4,7koa den bitartean, Europako Batasunean %6,4koa da.

Osasun sistemaren kalitatean defizit bat dago eta horren isla dugu: ospitaleetan ohe gutxi izatea; behar adina eguneko zentro ez izatea; beharriak ez betetzea hainbat arlotan: aho-hortzetako osasuna, buru-osasuna eta zahartzaroko gaixotasunak; Lehen Mailako Arretan pertsonal eta bitarteko gutxi izatea; arretaren masifikazioa maila guztietan (Lehen Mailako Arreta; Ospitaleko Arreta, Larrialdiak); Lehen Mailako Arretaren eta Arreta Espezializatuaren arteko koordinaziorik eza; ebakuntza-gelak eta beste azpiegitura batzuk gutxi erabiltzea (errehabilitazioa...); pertsonalaren motibazio eskasa; itxaron zerrenda luzeegiak izatea zenbait espezialitateetan eta lotura arriskutsuak osasun pribatuarekin.

Osasun arloko langileen lan baldintzak gero eta okerragoak dira erakundeak gauzatzen ari diren aurrekontu politika neoliberalaren ondorioz. Pertsonala falta da, izan ere, dauden plantillek ezin dute lan karga guztia aurrera atera behar bezalako kalitatearekin. Lan kargak gero eta handiagoak dira eta horrenbestez erritmoak ere gero

eta azkarragoak eta nekezagoak dira, eta arazo hau larria da pertsonalaren batez besteko adina handia dela kontuan hartzen badugu (Osakidetza-ko langileen erdiek 50 urtetik gora dute). Pertsonalaren behin-behinekotasuna eta lan kokatasuna gehiegizkoak dira eta horren ondorioz baliabideen kudeaketa ez da eraginkorra. Azkeneko urteotako soldata igoerak KPlaren azpikoak izan dira, izan ere, aurrekontu-politikak pertsonal gastuak kontrolatzeko xedea baino ez du eta horrek ezarritako mugek hertsatzen dituzte soldatak eta dagoeneko urriak diren plantillak. Horren ondorio dira osasun sistemako langileen nekea eta frustrazioa.

Aurrekontu arloko erabakiek eta haiekin batera erabaki politiko batzuek filosofia aldaketa ekarri dute osasun arloko kudeaketara. Hainbat urrats egin dira osasunaren merkantilizaziorantz, gaixoa jasankor bihurtu delarik.

Agiriaren 6. artikuluan, osasun arloko prestazio batzuk jasotzen ditugu, gaur egun osasun publikoan eskaintzen ez direnak: ahoa garbitzea, ortodontzia, enpasteak, periodontzia, exodontzia eta protesiak, aho-hortzetakoen artean; edo betaurrekoak oftalmologikoen artean; edo azterketa ginekologikoak emakumeen eskariz, zerbitzu ginekologikoen artean.

Baina proposamen apal hauetatik harantzago, aurreko paragrafoetan egin dugun kritikaren ildotik, beharrezkotzat jotzen dugu Nafarroako Foru Erkidegoko erakundeek osasun sistema publikoaren gainbehera geldiarazi eta egoera hobetzeko politikak garatzea. Politika hauek ondoko arloetan erabili behar lirateke:

(1).- Osasun arloan gastu publikoa handitzea:
a) EB-15eko batez bestekoarekin parekatzea, xede horretarako egungo BPGaren %4,7tik BPGaren %6,4ra igaro behar luke. b) Baliabide materialak handitzea, bai ospitaleetan bai osasun zentroetan. Ospitaleetan 1.000 biztanleko ohe kopuruak egungo milako 2,4 izatetik europar batezbesteko milako 6,1 izatera igaro behar luke. e) Osasun publikoaren estaldurak zabaltzea. Agiriaren 6. artikuluan jasotzen direnez gain, buru-osasuna, gaixotasun psikosozialak eta zahartzaroko gaixotasunak, besteak beste.

(2).- Sare publikoa indartzea. Osasun sare publikoaren xedea kalitatezko eta berdintasunezko zerbitzua eskaintzea bada, baliabide publikoak sare publikorako erabili behar dira. Errotik aldatu behar da filosofia osasun arloko kudeaketan. Osasuna eskubidea da ezen ez merkantilizatu daitekeen zerbitzua. Gehiago ez pribatizatzeko konpromisoa hartu behar da eta atzerantz egin behar da burutu diren azpikontratazioetan. Hartara, ondoko

hauek dira ukitutakoak: kafetegia, jantokia, sukaldia, garbiketa, segurtasuna edo mantentze lanak, besteak beste; larrialdiei etxean eskainitako arreta, larrialdietako telefonozko arreta, anbulantziak, artxibategiak, laginen garraioa, esterilizazioa eta ikerketa; hainbat zerbitzutan itunak bultzatzeko politika (ebakuntza kirurgikoak, hainbat azterketa, egonaldi luzeko arreta...); mutualitateen jarduera, haien esku hartze eremua zabaltzea eta.

(3).- Itxaron zerrendak hobetzea. Eraginkortasuna lortzeko plantilla gehitu behar da, pertsonala aintzat hartu eta gehiago balioetsi behar da eta instalazioak hobeki erabili behar dira.

(4).- Emakumeentzako, etorkinentzako eta gutxituentzako osasun-arretak handiagoa izan behar du Europako Batasunetik kanpoko etorkinen kopurua asko gehitu da azkeneko 8 urteotan. Klima aldaketak, lan baldintza eskasak eta egoera berrira egokitu beharrak eragin handia dute pertsona hauen osasunean.

Osasun sistemek ez diete berdintasunezko zerbitzua ematen gizonei eta emakumei. Eta hau hala da bai ikerketa egiterakoan bai emandako zerbitzuetan egin beharreko inbertsioen politika erabakitzen denean. Hartara, emakumeen osasun arazoek ez dute behar bezalako arreta jasotzen. Honi aurrekontu murrizketak gehitu behar zaizkie, izan ere haien ondorioz, adibidez, lehen mailako arreta publikoan murrizketak egin dira, eta honek emakumeak jo ditu bereziki, azterketa ginekologikoak egiteko eragozpenak jarri zaizkie eta.

Gutxituen kolektiboak bereziki behar du kalitatezko osasun sistema publikoa; alde batetik, ahalik eta bizi normalizatuena eramateko medizinar gehien behar dituztenak direlako, eta bestetik, balibide ekonomiko gutxidun taldea osatzen dutelako.

(5).- Pertsonalari buruzko politika hobetzea: a) Plantilla handitzea. b) Aldi baterako kontratuak gutxitzea. e) Pertsonalaren lan baldintzak hobetzea. d) Euskalduntzea.

ETXEBIZITZA

Etxebizitza bat izateko eskubidea urratua da gure gizarteko zati handi batentzat. Etxebizitza duina duten pertsonen ondoan, are bigarren etxebizitza bat dutenen ondoan ere, beste askok arazo handiak dituzte behar bezalako etxebizitza bat lortzeko.

Berriz ere, emakumeak egoera okerragoan daude etxebizitza bat lortzeko, soldata txikiagoak dituztelako, guraso bakarreko familiaburu direlako, etab. Etxebizitzen garestitasuna eta urritasuna

gaur egungo arazoa da, eta emakumeak gizonaren mende egoteko beste arrazoi bat da.

Etorkinak bereziki kolokan eta babesik gabe daude eta oso etxebizitza kaskarretan bizi behar izaten dute bizikide gehiegirekin batera.

Etxebizitzaren, txirotasunaren eta gizarte-bazterketaren artean korrelazio bikoitz gaiztoa dago. Alde batetik, bizi ahal izateko toki duin bat ez izateak bazterketa egoerak dakartza berekin. Bestetik, higiezinaren merkatuko gaur egungo prezioetan etxebizitza bat erosten ausartzeak txirotasun egoerak dakartza berekin.

Azkeneko urteetan asko handitu da biztanleen ahalmen ekonomikoaren eta etxebizitzaren prezioen arteko aldea: soldata etxebizitza prezioak baino askoz gutxiago ari dira igotzen (bai etxebizitza berri zein bigarren eskukoak), eta baita alokairuak baino askoz gutxiago ere. Gazte batek diru sarreren %66 erabili behar izaten du etxebizitza ordaintzeko; etxebizitza batek gazte baten 15 urteko soldata balio du merkatu librean.

Etxebizitza librean jabetzan eskuratzea da etxebizitzaren merkatuko eredu nagusia. 2004ko babesturiko etxebizitzaren %6,4 baino ez zen alokairuan eskaini.

Etxebizitzaren egoerak politika publikoen bidez jorratu beharreko ondoko ondorio hauetara eramaten gaitu:

(1).- Etxebizitza kopurua ez da behar bestekoa. Etxebizitza defizita 10.000 baino gehiagokoa da Nafarroan. Eta defizit hau ez da gutxitzen, aitzitik, 1996. urtetik gora ari da, eskaintza urriegia delako. Hutsik dauden etxebizitzek funtsezkoak izan beharko lukete eskaintza defizit hori estaltzeko, baina ez da horrela.

(2).- Salmenta prezioak eta alokairuak neurritz gaineakoak dira. Alokairuek soldaten erdia baino gehiago kentzen dute. Etxebizitzaren prezioak etxebizitza bat behar duten biztanle askok ordain dezaketen gehienezko prezioak baino askoz ere altuagoak dira.

(3).- Hipoteka kredituen pisu eskerga. 2004. urtean zor hau 1.280 milioi eurokoa zen, hau da Nafarroako BPGaren %9,2.

(4).- Etxebizitzarekin espekulatzea balio seguru da, eta hau beste arazo bat da alokairuko eskaintzari begira.

Agiriaren 7. artikuluan proposamen batzuk zehazten dira administrazio publikoek etxebizitzaren arloan burutu beharko luketen politikarako:

(1).- Etxebizitzetako buruzko jarduketara publikoa integrala izango da, alegia hauetara hedatuko da: lurralde eta hiri antolamendua, lurzorua, hornidura, urbanizazioa eta eraikuntza, Nafarroako Foru Erkidegoan bizi direnen eskariari erantzuteko behar adinako etxebizitza parke publikoa eraikitzea botere publikoen titulartasunaren pean.

(2).- Botere publikoek ekologikoak, seguruak eta erabiltzaileen beharretarako egokiak diren etxebizitzak eraikuntza bultzatuko dute.

(3).- Etxebizitza publikoak nagusiki alokairuan esleituko zaizkie eskatzaileei, gutxienez esleitutako etxebizitza publikoen %60 alokairukoak izango dira, eta diru sarrerarik apalenak dituzten pertsonen izango dute lehentasuna.

Alokairuari esker etxebizitza parke publiko bat sor daiteke, hauexek baita, hain zuzen ere, Nafarroako gabezia nagusietako bat. Alokairu erregimenak bermatzen du babespeko etxebizitzak beti egongo direla etxebizitza babestu bat eskuratzeko bete beharreko baldintzak betetzen dituzten biztanleen esku. Alokairuko etxebizitza babestuak erabiltzeko eskubidea baizik ez du ematen, eta etxebizitza babestu bat erosteak berriz balio handiko ondasun baten jabetza ematen du eta inbertsio konnotazioak ditu.

(4).- Etxebizitzarako gastu publikoa gaur egungo BPGaren %0,4tik BPGaren %2ra handituko da bost urteko epean.

(5).- Aurreko idatz zatian aipatutako epean, babes ofizialeko 10.000 etxebizitza eraikiko dira urtero.

(6).- Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu gaur egun hutsik dauden etxebizitzak parketik 12.000 etxebizitza merkatura ateratzeko.

(7).- Etxebizitzak finantzatzeko politika ez da zergak arintzean oinarrituko.

Gastu publikoaren bidea zergak arintzearena baino askoz ere egokiagoa da. Zergak arintzea atzerakoia da ez dielako mesederik egiten errenta apalenak dituzten gizarte sektoreei. Beste alde batetik, zergak arintzearen ondorioz bildutakoa gutxiago da, eta horrek gastu publikoa handitzea galarazten du 2006ko aurrekontuetan 127 milioi euroko kostu fiskala aurreikusten da etxebizitza arloan, alegia etxebizitzarako aurreikusitako gastu publikoaren bi halako (67,7 milioi euro).

Gizarte ereduari buruzko agirirako legegintzako herri ekimena

ZIOEN ADIERAZPENA

Gizarte Ereduari buruzko Agiriaren xedea honakoa da: mendekotasun egoeran egoteagatik edo beste arrazoi batzuegatik formalki aitortutako eskubide batzuk benetan gauzatzeko biderik ez duten pertsonen eskubideak aintzat hartzea. Ezin da onartu gizarte demokratiko batean ongizate onegarri batetik baztertutako biztanleria sektorerik egotea.

Desberdintasun egoera hauek ez dira ez behin-behineko ez inoizkako kontua eta agerian jartzen dute arrazoi estrukturalak sortzen eta irautarazten dituztela egoera horiek. Horrengatik, gizarte arloko politika publikoak errotik aldatu behar dira, eta gizarte politikak beste era batera ulertu behar dira, alegia guztientzakoak diren politikak bezala, eta pertsona guztientzat eta bizitzaren eremu guztietan bizi baldintza duinak lortzera bideratu behar dutela jardura publikoa.

Pertsona guztien bizi baldintzak hobetzeko, gizarte-eskubideak aitortu behar dira eta berdintasun eta elkartasun printzipioetan oinarritutako gizarte sistema sortu beharra dago. Ezin da sortu gizarte demokratikorik berdintasunik ez badago eta elkartasuna, kasurik onenean, senitartekoen harremanen eremurako uzten bada. Gizartearen antolakuntzak berak ere zilegitasuna galduko du baldin pertsonak ez badute sentitzen gizarte horrek denon ongizateaz eta beharrezkoak betetzeaz arduradun jotzen duela bere burua.

Orain arte esan ditugunekin bat datorren gizarte politika batek herritarren premiak hartu behar ditu abiapuntutzat, batez ere gizarteko kolektibo beharrezkoak. Pertsonen eskubideen narriadura eragiten duten gizarte egoerak geldiarazi behar ditu. Era berean, gizarte-politikak mekanismoak aurreikusi behar ditu gizarte eta familia bizitza garatu ahal izateko, gizarte-trebetasunen garapenera bateragarria den era batean, bereziki lan bizitzarekin bateragarritasuna ahalbidetzeko.

Gizarteak onartu behar du erronka nagusia bazterketa egoerak gainditzea dela, eta pertsonen eskubideek pairatzen duten narriadura geldiarazi behar duela eta erantzun bat eman behar diela. Gizartearen erantzukizuna da eskubide horiek eragozten dituzten oztopoak kentzea, eta horrela gaur egun agerikoak diren gizarte-defizit ugari erantzuteko bidea ematea.

Gizarte Ereduari buruzko Agiri honek eskatzen du pentsamolde neoliberalaren printzipio ideologikoak alde batera uztea, politika publikoak muga-

tzen dituelako, eta esku hartze publikoaren aukeak murrizten dituelako irizpide ekonomizistekin, izan ere, gogoeta sakona egin beharra dago honen guztiaren inguruan. Hala gertatzen da zor publikoa gutxitu edo aurrekontuetan defizitak kendu behar direla esaten denean besterik gabe, horrela eginez beste kontu batzuk saihesten baitira, hala nola politika fiskalari edo gastu publikoaren birbanatzeari buruzko eztabaida. Pentsamendu neoliberal honen ondorioz, zenbait kasutan, garrantzi handiko ondasun publikoak salgai jarri dira eta horrela bidea eman zaio ekimen pribatuari zerbitzu publikoen kudeaketan sartzeko, bidegabeki eta inongo bermerik gabe herritarrentzat.

Muga hauei sistema politikoaren beraren mugak gehitu behar zaizkie, parte hartze publikoa esangura juridikorik gabeko errepika hutsa bihurtu baita, izan ere, parte hartze honen errealitatea, bai politikak taxutzeko fasean bai hauek gauzatzera koan, etsipengarria da. Botere publikoek zeregin aktiboagoa hartu behar dute beren gain parte hartze publikoa ahalbidetzeko, eta xede horretarako, behar beste eskumen dituzten parte hartzeko organoak sortu eta parte hartzeko mekanismo eraginkorrak aurreikusi behar ditu.

Gizarte Ereduari buruzko Agiriaren Lege honen xedea eta berak aitortzen dituen eskubideena, sentsibilitatea gehitzea ere bada. Gizarteari adierazi nahi dio indarren daudela balio eta printzipio batzuk eta, bistan denez, berauek gidatu behar dutela botere publikoen jarduera. Bide batez, balio behar du pertsonen ere gogorarazteko denok garelako gizakiak eta, horrenbestez, elkartasuna beharrezkoa dela gizarte antolatu batean, egiazkoa eta eraginkorra den askatasuna eskainiko duen gizarte sistema baten berme gisa.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Legearen xedea

Lege honen xedea Gizarte Ereduari buruzko Agiria arautzea da, honen bitartez bizilekua Nafarroako Foru Erkidegoan duten pertsona guztiei eskubide sozialak aitortzen zaizkiela.

2. artikulua. Lege honek gidari dituen printzipioak

Lege hau gidatzen duten printzipioak honakoak dira:

1. Gizarte-eskubideen aitorpena, Agirian jasotzen denarekin bat etorritik.

2. Gizarte-eskubideez gozatzeko biztanleriaren sektore handiek dituzten mugak gainditu beharra,

muga hauek bereziki mendeko pertsonak, emakumeak eta gazteak jotzen dituela, besteak beste.

3. Agiri honetan aitortzen diren eskubideak eta gizarte-politikak bermatzeko, politika publikoak gauzatzeko benetako aukerak badaudela adieraztea.

4. Pertsonen eskubideak parekatzea, haien herritartasuna kontuan hartu gabe; aurretiaz, aldi jakin batean, Nafarroako Foru Erkidegoan bizi izatea eskatzea zentzuzkoa den kasuetan baino ezin izango dira mugatu eskubide hauek.

5. Politika publikoak zehaztea bizitza laboral, sozial eta publikoaren arlo guztietan genero bereizkeria galarazteko.

II. TITULUA

Oinarrizko gizarte-eskubideak

3. artikulua. Oinarrizko gizarte-eskubideak.

Nafarroako Foru Erkidegoan bizi diren pertsona guztiek honako oinarrizko gizarte-eskubide hauek dituzte:

1. Behar adinako gizarte-babesa izatekoa.
2. Osasun-babesa eta arreta eta zerbitzu sanitario egokiak izatekoa.
3. Kalitatezko hezkuntza izatekoa.
4. Etxebizitza duin eta egokia izatekoa.
5. Ingurumen osasuntsua izatekoa.
6. Enplegu duin bat izateko eskubidea.
7. Mendekotasun egoeretan zaindua izatekoa.
8. Behar adinako familia babesa izatekoa.
9. Sorlekuagatik bereizkeriarik ez jasatekoa.
10. Txirotasunari aurre egiteko behar adinako oinarrizko errenta eta gizarte premietarako laguntzak izatekoa.

III. TITULUA

Jarduketak

4. artikulua. Mendekotasuna

1. Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaindua izateko eskubidea dute eta bere ohiko bizilekuan bizitza propio bat izateko eskubidea bermatu behar zaie.

2. Botere publikoek mendekotasunaren arretarako zerbitzu publiko eskaini behar dute, eta hau dagokion araubide juridikoaren mende egongo da.

3. Mendekotasunaren arretarako zerbitzu publiko eskubide unibertuala eta doakoa da.

4. Nafarroako Gobernuak mendekotasun egoeren arreta premien mapa bat egingo du, lege hau indarrean jarri eta sei hilabetera onartu beharko dena.

5. artikulua. Hezkuntza

1. Gobernuen utzi ezinezko betebeharra da honako hauek eraginkortasunez bermatzea, alegia: hezkuntzarako eskubide unibertsala, izan ere, gizartearen kohesiorako ezinbestekoa da eta; jatorrizko desberdintasunen konpentsazioa eta aukera berdintasuna.

2. 2007. urtetik aurrera, ikastetxe publikoen finantzazio sistema bat ezarriko da Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Orokorren kargura, eta sistema honen bidez, ikastetxeek jasotzen duten eskari osoari erantzun diote eta, ildo beretik, hezkuntzaren benetako doakotasuna bermatuko da.

6. artikulua. Osasuna

1. Osasun publikoak bere gain hartuko ditu aho-hortzetako osasuna eta oftalmologi arreta.

2. Aho-hortzetako osasunaren barnean honakoak sartuko dira gutxienez: ahoa garbitzea, ortodontzia, enpasteak, periodontzia, exodontzia eta protesiak.

3. Oftalmologi arretaren barnean betaurrekoak sartuko dira gutxienez.

4. Zerbitzu ginekologiko publikoen barnean emakumeek eskatzen dituzten azterketa ginekologikoak sartuko dira.

5. Osasun zerbitzu publikoaren prestazioa kalitatezkoa izango da, arreta egokia eskainiko du, behar adinako bitarteko tekniko eta humanoak izango ditu, eta itxaron zerrendak eta laguntza zerbitzuen saturazioa saihestuko dira.

7. artikulua. Etxebizitza

1. Etxebizitza buruzko jarduketa publikoa integrala izango da, alegia hauetara hedatuko da: lurralde eta hiri antolamendua, lurzoruaren hornidura, urbanizazioa, Nafarroako Foru Erkidegoan bizi direnen eskariari erantzuteko behar adinako etxebizitza parke publikoa eraikitzea botere publikoen titulartasunpean.

2. Botere publikoek ekologikoak, seguruak eta erabiltzaileen beharretarako egokiak diren etxebizitzak eraikuntza bukatutako dute.

3. Etxebizitza publikoak nagusiki alokairuan esleitu zitezkeen eskatzaileei, gutxienez esleitutako etxebizitza publikoen %60 alokairukoak izango dira, eta diru sarrerarik apalenak dituzten pertsonak izango dute lehentasuna.

4. Etxebizitzarako gastu publikoa gaur egungo BPGaren %0,4tik BPGaren %2ra handituko da Lege hau indarrean jarri eta hurrengo bost urteko epean.

5. Aurreko idatz zatian aipatutako epean, babes ofizialeko 5.000 etxebizitza eraikiko dira urtero.

6. Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu gaur egun hutsik dauden etxebizitzak parketik 12.000 etxebizitza merkatura ateratzeko.

7. Etxebizitzak finantzatzeko politika ez da zergak arintzean oinarrituko.

IV. TITULUA **Finantzazioa**

8. artikulua. Finantzazioa

Lege honetan aitortutako eskubideen eta xede horretarako ezarriko diren zerbitzu publikoen finantzazioa Nafarroako Foru Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan jasoko da eta, hala badagokio, udal-txeetakoetan.

V. TITULUA **Antolaketa**

9. artikulua. Antolaketa

1. Gizarte Ereduari buruzko Agiria gauzatzeko eratuko den Aholku Batzordea kontsulta eta parte hartzeko organoa izango da. Aholku Batzordeak txostenak eman beharko ditu gizarte-politikekin lotutako arau proposamen guztien inguruan. Bestalde, ekimenak proposatu ahal izango ditu gizarte gaietan garrantzi berezia duten politika publikoetan ere.

2. Urtero, eta gehienaz ere martxoan amaitu aurretik, Batzorde eskudunak txosten bat aurkeztuko du, garatutako gizarte-politikez, haien ondorioez eta politika hauek gauzatzekoan agertu diren mugez. Txosten hau Aholku Batzordeak alde aurretik finkatutako metodologia bati jarraituz taxutuko da. Txostena zehaztutako epean helaraziko da Aholku Batzordera eta ondoren Legebiltzarrean erabango da. Testu hau Legebiltzarreko Batzorde mailan aztertzerakoan Aholku Batzordeko kideek osatutako ordezkari batzuk parte hartuko du, hartara, Aholku Batzordean ordezkariak dauden administrazioetako kideek ezin izango dute osatu aipatutako ordezkariak. Gizarte zibilak Aholku Batzordean dituen ordezkariak aukeratuko dute ordezkariak hori.

Azken xedapena

Lege hau 2007ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Lehen xedapen gehigarria

Ahalmenak ematen zaizkio Nafarroako Gobernuari Lege hau aplikatzeko behar diren dekretuak eman ditzan. Dekretuok, edo Lege hau aplikatzeko

behar diren arauak eman arte, administrazio publiko eskudunek etxeko laguntza egokia edo plaza bat egoitza batean bermatuko diete mendekotzat jotzen diren pertsoneri.

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea egoki jotzen den “Nafarroa: guztion artean etorkizuna eraikiz” izeneko erakusketak 3 milioi eurotik gorako kostua eduki izana foru erkidegoko diru publikoarentzat, kontuan izanik Kultura Departamentuaren “Udaletako kultur ekintzetarako laguntzak” izeneko kontusailak 540.000 euro soilik dituela guztira 2007ko aurrekontuan.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, jakiteko ea egoki jotzen den “Nafarroa: guztion artean etorkizuna eraikiz” izeneko erakusketak 3 milioi eurotik gorako kostua eduki izana foru erkidegoko diru publikoarentzat, kontuan izanik Kultura Departamentuaren “Udaletako kultur ekintzetarako laguntzak” izeneko kontusailak 540.000 euro soilik dituela guztira 2007ko aurrekontuan. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Kultura kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Egoki jotzen du “Nafarroa: guztion artean etorkizuna eraikiz” izeneko erakusketak 3 milioi eurotik gorako kostua eduki izana foru erkidegoko diru publikoarentzat, kontuan izanik Kultura Departamentuaren “Udaletako kultur ekintzetarako laguntzak” izeneko kontusailak 540.000 euro soilik dituela guztira 2007ko aurrekontuan?

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuako lehendakariak ere beharrezkoa ikusten duen euskara eta indarkeria maltzurki ez lotzea.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuako lehendakariak ere beharrezkoa ikusten duen euskara eta indarkeria maltzurki ez lotzea. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Lege-

biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Atzo Diputatuen Kongresuan izandako eztabaidan, mozio bat onetsi zen. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da beharrezkoak diren baliabideak jar ditzan estatuak Nafarroan duen administrazioari langile elebidunen kopurua handitzeko. Eztabaidan, UPNko diputatu Carlos Salvadorrek Nafarroako herritarren hizkuntza eskubideen defentsa eta euskararen defentsa ETAREN indarke-

riarekin lotu zituen. Tamalez, aipatu lotura morbo-so hori ez da gertaera isolatua; izan ere, azken urteotan antzeko gertaera ugari izan dira, eta, horren ondorioz, Europako Kontseiluak adierazi behar izan du bidegabeak eta desegokiak direla.

Hori dela-eta, hauexekin jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak ere beharrezkoa ikusten al du euskara eta indarkeria maltzurki lotzea?

Iruñean, 2006ko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ahalmenik ote duen bere gain hartzeko bide seinale guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egon daitezen aldatzeak duen kostua.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ahalmenik ote duen bere gain hartzeko bide seinale guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egon daitezen aldatzeak duen kostua. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako bide seinale guztiak aldatzea erabakiko balitz, euskaraz eta gaztelaniaz egon daitezkeen, Nafarroako Gobernuak izanen al luke ahalmenik horren kostua bere gain hartzeko?

Iruñean, 2006ko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, jakiteko noiz eta nola beteko duen Nafarroako Gobernuak Berriozarko Udalarekin hitzarmena sinatzeko konpromisoa, Laura zentroa finantzatze aldera.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, jakiteko noiz eta nola beteko duen Nafarroako Gobernuak Berriozarko Udalarekin hitzarmena sinatzeko konpromisoa, Laura zentroa finantzatze aldera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2006ko martxoaren 16an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko mozioa onetsi zen aho batez. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako

Gobernua premiatzen du Berriozarko Udalarekin hitzarmen bat izenpetu dezan emakumeari laguntzeko Laura zentroa finantzatzeko.

Nafarroako Gobernuak 2006. urteko aurrekontuetan horretarako kontusaila ez aurreikusteaz gain, talde sozialistak xede horretarako aurkezturiko zuzenketa ere atzera bota zuen.

la urtebete iragan da, eta Nafarroako Gobernuak ez du aipatu hitzarmena sinatu; gainera, ez Nafarroako Gobernuak aurkeztutako aurrekontuen proiektuan, ez sostengua ematen dioten parlamentu-taldeen zuzenketa, ez da agertzen Berriozarko ginekologia zentroa finantzatzeko kontusailik.

Beraz, orain arte hitz eta asmo onak, baina ekintza bat ere ez.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

Noiz eta nola beteko du Nafarroako Gobernuak Berriozarko Udalarekin hitzarmena sinatzeko konpromisoa, Laura zentroa finantzatze aldera?

Iruñean, 2006ko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Murugarrengo Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Murugarrengo Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte

emandako laguntza edo dirulaguntzei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánnek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zer laguntza edo dirulaguntza eman dizkio departamentu horrek Deierriko Udaleko Murugarrengo Kontzejuari 2003ko urtarrilaren 1etik 2006ko azaroaren 28ra? Zehaztu laguntza bakoitzaren xedea, zenbatekoa eta justifikazioa.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Toki Administrazioko Departamentuak Murugarrengo Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Toki Administrazioko Departamentuak Murugarrengo Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánnek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Toki Administrazioko kontseilariak idatzizko erantzuna eman diezaion:

– Zer laguntza edo dirulaguntza eman dizkio departamentu horrek Deierriko Udaleko Murugarrengo Kontzejuari 2003ko urtarrilaren 1etik 2006ko azaroaren 28ra? Zehaztu laguntza bakoitzaren xedea, zenbatekoa eta justifikazioa.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Murugarrengo Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Murugarrengo Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zer laguntza edo dirulaguntza eman dizkio departamentu horrek Deierriko Udaleko Murugarrengo Kontzejuari 2003ko urtarrilaren 1etik 2006ko azaroaren 28ra? Zehaztu laguntza bakoitzaren xedea, zenbatekoa eta justifikazioa.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, jakiteko ea zer egin duen Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Batzordearen 2000ko azaroaren 21eko erabakia betetze aldera.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, jakiteko ea zer egin duen Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Batzordearen 2000ko azaroaren 21eko erabakia betetze aldera buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko azaroaren 21ean eginiko bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen, Nafarroako Gobernuak premiazko eskoletako jantokiek bete behar dituzten baldintzak arau ditzan.

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du sei hilabeteko epean eskola jantokiek bete behar dituzten baldintzak arautuko dituen arau-proposamen bat egin dezan, ondoko irizpideei jarraituz:

1. Administrazioak, eskola-kontseiluen laguntzarekin, antolatu eta kudeatuko ditu ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako derrigorrezko mailetako eskola jantoki guztiak.

2. Jantokiaren berezko jarduketarako planifikaturik hezkuntza helburu batzuk ezarriko dira; zerkusia izanen dute elikaduran, higieanean eta nutrizioan ohitura osasungarriak sortzearekin eta gaitasun sozialetan trebatzearekin.

3. Otorduen aurreko eta geroko aisialdia adinaren eta ikasleen ezaugarrien arabera antolatuko da. Jantokiaren eta asialdiaren erantzuleek behar den prestakuntza izanen dute eta haien proposamenak Eskola Kontseiluak balioetsi eta onetsiko ditu.

4. Horretatik guztitik ondorioztatzen den erantzukizun zibila Nafarroako Gobernuak eta enpresa hornitzaileek partekatuko dute.

5. Berariaz baloratuko da enpresa hornitzaileen kontratazioan hezkuntza proposamen ahal den eta osatuena eskaintzen dutenak.

6. Zaintzaile-bazkaltiar ratioak egokitu egingen dira, eta beti izanen dira irakasle-gela ratioak baino txikiagoak.

7. Sortu berritako ikastetxe guztiek jantokirako lekua izanen dute; gainerako ikastetxeetan eskola-jantokirako beste ezertarako erabiltzen ez den leku bat egoteko ahaleginak egingen dira.

8. Administrazioak eskola jantokietako prezioak ezarriko ditu, eta behar diren fondoak jarriko dira behar duten familiei bekak edo laguntzak eman ahal izateko."

Galdera

Zer egin du Nafarroako Gobernuak orain arte 2000. urtean onetsitako erabakian ezarritakoa betetzeko?

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, "Iruñerriari buruzko 2006ko azterlan soziolinguistikoa" kontratatzearen kostuari eta horretarako prozedurari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JUAN MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, "Iruñerriari buruzko 2006ko azterlan soziolinguistikoa" kontratatzearen kostuari eta horretarako prozedurari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Migu-

el José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

2006ko urriaren 10ean, Hezkuntza kontseilariak agerraldia egin zuen Hezkuntza Batzordean eta Ikertalde enpresak eginiko "Iruñerriari buruzko 2006ko azterlan soziolinguistikoa" azaldu zuen.

Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Zenbateko kostua izan du ikerketa horrek? Zein izan zen erabilitako kontratazio prozedura?

Iruñean, 2006ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, Iruñerriaren hizkuntza-mugak aldatze aldera egiten ari diren azterlanei eta txostenei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JUAN MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko abenduaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, Iruñerriaren hizkuntza-mugak aldatze aldera egiten ari diren azterlanei eta txostenei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Parlamentuak 2006ko azaroaren 9an eginiko Osoko Bilkuran, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak adierazi zuen Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkurak ekainaren 9an hartutako Erabakia betetzeko asmoa zuela.

Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatu zen, "Euskarari buruzko Foru Legearen 5.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, behar diren azterlan eta txostenak egin ondoren, kasua bada, eremu mistoaren eta ez-euskaldunaren mugak berrikus ditzan Iruñerrian, errealitate soziolinguistikoari egokitzeko". Aipatu kontseilariak esan zuen Gobernuak oraindik ez dauzkala beharrezkoak diren azterketa eta txostenak, eta Hezkuntza kontseilariak parlamentu-taldeei aurkeztutako azterketa soziolinguistikoa ez dela nahikoa erabaki horretan aurreikusitako helburuak betetzeko.

Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Zer azterlan eta txosten egiten ari dira Iruñerriaren hizkuntza-mugak aldatze aldera? Azterlan horien zerrenda nahi dut, eskatu zireneko data eta horien ardura duen organo edo enpresaren izena adierazten dituen. Kasua bada, zer azterlan eta txosten egiten ditu Gobernuak? Noiz egonen dira amaituta aipatu azterlan eta txostenak?

Iruñean, 2006ko abenduaren 4an.

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, gelazain nagusiaren lanpostua merezimenduen lehiaketa bidez betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Gelazainen Kidegoko funtzionarioen artean.

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda

Lehendakaritza honek, deialdiko 4 oinarriak xedatutakoarekin bat –deialdia Mahaiak onetsi zuen eta 2006ko urriaren 16ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, ERABAKI DU:

1. Izangai Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda hau onestea:

Onartuak:

Ansorena Urriza, Antonio

Bazertuak:

Inor ere ez.

2. 6.4.1. oinarriak ezartzen duen lan oroitidazkia aurkezteko epea 2007ko otsailaren 16an bukatuko da, 14:00etan. Lan oroitidazkia Erregistro Orokorrean aurkeztu behar da gutunazal itxi batean.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete	43,95 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko	1,15 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko	1,30 »